



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

Martitzena, 2019/01/22

## **Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoak, Mainer Santos eta Ane Zelaia margolarien artelanak dituan *ESO* erakusketea aurkeztu dau**

Bizkaiko Batzar Nagusiek beste erakusketa bat zabalduko dabe Bilboko egoitzan. *ESO* arte erakusketea, EHU/UPVko Arte Ederren Fakultadetik datozen euskal pinturako talentu gazteen alde egiten dan apustuaren beste adibide bat da. Leioako fakultadeagaz dagon lankidetzaren estuaren froga moduan, oraingo honetan, Erakusketa Aretoak artista gazte biren artelanak erakutsiko ditu: Mainer Santos eta Ane Zelaia. Erakusketea medioen aurrean aurkezteko ekitaldian Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea egon da.

Erakusketak 20 artelan jasoten ditu, Ane Zelaiaren 12 eta Mainer Santosen 8. Gehienak –17– orio pinturak dira, hainbat euskarritan (kartoia, taula edo papera). Mainer Santosen lanari buruz azpimarratu behar da, Joseba Eskubi erakusketaren komisarioaren berbetan, “geruzen arabera hazkundera eta esnezko tonuak bata bestearen ganean jarten dituala, dana belautara dagola emoten dau, formen marrazkia ezabatu egiten dauen lanbro horren ostean”. Ane Zelaiaren pinturan, “formak ikaratu egiten dira tonu elektrikoaren ekartzaren azpian, eta emoten dau danak dardara arraroa daukala”, esan dau Eskubik.

Artisten beharra, ikusle bakotzak euren lanen ganean egin daiketan interpretazio librea zentretan da. Batak be ez deuse izenik jarten euren artelanei, eta hortik sortzen da erakusketaren izenburua. “Ez genduan ikusleen begirada librea baldintzatuko leuken ezer jarri gura”, esan dabe biek. “*ESO* berbea aukeratu gendun erakusketarako; sinplea da, inpersonala, leku bati buruzko aitamena egiten dau eta iradokigarria da, joateko gonbitea luzatzen deustu”, azaldu dau Ane Zelaia. Artelanez bien arteko aldeak erakusten ditue, baina baita batak bestearengandaukan eragina be. “Biok oso presente genduan zeruertzaren lerroa, eta joko handia emon deusagu erakusketea muntetako”, esan dau Mainer Santosek.

Mainer Santos Arte Ederretan graduau zan Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU/UPV) 2018an. Urte berean, Segoviako Quitanar Jauregiak Paisajearen Pintore Pentsionatu ikastarorako aukeratu eban. Ane Zelaia be Arte Ederretan graduaua da Granadako Unibersidadean (2018). Orain denpora gitxi 2019ko *pintura master erakusketan* hartu dau parte Iruñeko Civiox Iturraman. Une honetan, biak, Pintura Masterra egiten ari dira Euskal Herriko Unibertsitatean.

Beste urte batez, Bizkaiko Batzar Nagusiek eutsi egiten deuse gure Lurralde Historikoan prestetan diran artisten beharra gizartera gerturatzeko lekua eskaintzeko apustuari, uriaren erdialdean. *ESO* erakusketea asmo handiko helburu horren beste adibide bat da. Erakusketea

Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa aretoan dago zabalik (Hurtado de Amezaga kalea, 6 – beheko solairua, Bilbo) zezeilaren bukaerara arte, 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura, sarrera libreagaz.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Martes, 22/01/2019

## **La Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia presenta la muestra *ESO*, con obras de las pintoras Maider Santos y Ane Zelaia**

Las Juntas Generales de Bizkaia abren una nueva exposición en su sede de Bilbao. La muestra artística *ESO* es una prueba más de la apuesta por jóvenes talentos de la pintura vasca procedentes de la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU. Como prueba de la estrecha colaboración con la facultad de Leioa, en esta ocasión la Sala de Exposiciones muestra las obras de dos jóvenes artistas: Maider Santos y Ane Zelaia. La presentación de la muestra a los medios de comunicación ha contado con la presencia de la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui.

La muestra incluye 20 obras, 12 de Ane Zelaia y ocho de Maider Santos. La mayoría -17- son óleos sobre diferentes soportes (cartón, tabla o papel). Sobre la obra de Maider Santos cabe destacar, en palabras de Joseba Eskubi, comisario de la exposición, “el crecimiento en capas y la superposición de tonos lechosos, donde todo parece estar velado y replegado tras esa bruma que desdibuja las formas”. En la pintura de Ane Zelaia, “las formas se estremecen bajo una tormenta de tonos eléctricos y todo parece tener un extraño temblor”, afirma Eskubi.

El trabajo de las artistas se centra en la libre interpretación de sus obras por cada espectador. Ninguna de las dos pone título a sus pinturas, y de ahí surge el título de la exposición. “No queríamos nada que condicionara la libre mirada del público”, afirman ambas. “Dimos con el término *ESO* para la exposición; es simple, es impersonal, hace referencia a un lugar y es sugerente, te invita a ir”, explica Ane Zelaia. Las obras muestran sus diferencias pero también su influencia mutua, “la línea del horizonte la teníamos las dos muy presente y le hemos dado mucho juego para montar la muestra”, comenta Maider Santos.

Maidier Santos es graduada en Bellas Artes por la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) en 2018. En ese año también fue seleccionada para el curso de Pintores Pensionados del Paisaje por el Palacio Quitarar, en Segovia. Por su parte, Ane Zelaia es graduada en Bellas Artes por la Universidad de Granada (2018). Recientemente ha participado en la *Exposición máster de pintura 2019*, en Civivox Iturrama, Pamplona. Actualmente ambas se encuentran cursando el Master de Pintura en la Universidad del País Vasco.

Un año más, las Juntas Generales de Bizkaia mantienen su firme apuesta por ofrecer un espacio céntrico que sirva para hacer llegar a la sociedad el trabajo de artistas que se forman en el Territorio Histórico. La exposición *ESO* es otro ejemplo de esta ambiciosa meta. La muestra estará abierta en la Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia (C/Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja, Bilbao) hasta finales de febrero, en horario de 08:00 a 20:00 horas, de lunes a viernes y con entrada libre.